



1. Imaginatu San Martineko bulegoetan lan egiten duzula eta zure nagusiak eskatzen dizula dokumentuak dituen gutun-azal bat beste egoitza batera eramateko. Zer egingo duzu?

- a) Azkar gutun-azala hartuko duzu, kalera aterako zara eta norbaiti galdetuko diozu nola iritsi.
- b) Kalera atera baino lehen, joateko eta etortzeko bidea antolatuko duzu.
- c) Konfiantzazko norbaiti deituko diozu telefonoz eta nola iritsi zaitezkeen galdetuko diozu.

2. Imaginatu zure nagusiari mezu bat emateko eskatu dizutela, baina zure nagusia bilera batean dago. Zer egingo duzu?

- a) Bileran sartuko zara eta han bertan, mezua azalduko diozu denen aurrean.
- b) Bileran sartuko zara, bilera etengo duzu, zure nagusiari irteteko eskatuko diozu eta mezua azalduko diozu.
- c) Bilera bukatu arte itxarongo duzu nagusiari mezua emateko.

3. San Martineko bulegoan lan egiten duen pertsona batek Ibaiondoko Gizarte Etxean lan egiten duen pertsona bati deitu nahi dio. Zer motako deia izango da?

- a) Kanpoko deia, beste eraikin batera deitzen ari delako.
- b) Barneko deia, 2 eraikinak Udalekoak direlako.
- c) Probintziako deia, 2 eraikinak probintzia berean daudelako.



**4. Imajinatu bulegoan pertsona batekin
gai bati buruz ari zarela hizketan.
Une horretan telefono dei bat jaso duzu.
Zer egingo duzu?**

- a) Deiarri erantzungo diozu
bulegoan zurekin dagoen pertsonarekin
hitz egiten jarraitzen duzun bitartean.
- b) Ez diozu deiarri erantzungo, lanpetuta zaudelako.
- c) Deiarri erantzungo diozu, mezua hartuko duzu
eta esango diozu beranduago deituko diozula.

**5. Imajinatu astelehenetan mezulari bat etortzen dela beti.
Lan egiten duzun sailarentzako
kanpoko paketeak ekartzen ditu.
Zuk duzu pakete horiek hartzeko ardura.
Baina egun batean, mezularia iristean
oso lanpetuta zaude.
Zer egingo duzu?**

- a) Mezulariari kaixo esango diozu,
paketeak mahaiaren gainean uzteko eskatuko diozu
eta esango diozu gero zu arduratuko zarela
paketeak antolatzeaz.
- b) Mezulariari kaixo esango diozu,
paketeak sailka antolatzeko eskatuko diozu
eta albarana sinatuko diozu.
- c) Mezulariari kaixo esango diozu,
albarana sinatuko diozu
eta paketeak gordeko dituzu,
gero antolatzeko eta banatzeko.



6. Imajinatu biltegian lan egiten duzula eta 3 gauza hauek iristen zaizkizula: bulegoko aulki bat, Gasteizko esku-orri batzuk eta bulegoko tiradera-altzari bat. Nola antolatuko zenituzke gauza hauek?

- a) Tamainaren arabera.
- b) Objektu-motaren arabera.
- c) Iritsitako ordenaren arabera.

7. Imajinatu 3 pakete iritsi direla zure lanera eta zuk entregatu behar dituzula. Hemen taula bat daukazu pakete bakoitzaren ezaugarriekin. Lehenengo zein pakete entregatu behar duzu?

- a) 123 luzapenerako dena.
- b) Agurtzanerentzako dena.
- c) Funtzio Publikoaren Sailerako dena.

Saila	Solairua	Hartzailea	Lanpostua	Premiazkoa	Luzapena
Funtzio publikoa	3	Felipe	Zerbitzuetako laguntzailea	Bai	892
Kultura	-1	Miren	Zinegotzia	Ez	123
Ogasuna	2	Agurtzane	Teknikaria	Ez	852

8. Begiratu berriz aurreko galderako taula. 3 paketeetatik zein entregatuko duzu lehenengo, zein entregatuko duzu bigarren, eta zein hirugarren?

- a) Lehenengo Feliperena, bigarren Agurtzanerena eta hirugarren Mirenena.
- b) Lehenengo Funtzio Publikoarena, bigarren Kulturarena eta hirugarren Ogasunarena.
- c) Lehenengo Zinegotziarena, bigarren Teknikariarena eta hirugarren Zerbitzuetako laguntzailearena.



9. Imaginatu lanean kortxozko panela botatzeko esan dizutela, baina ez dakizu non bota.

Zein telefono zenbakira deituko duzu hori galdetzeko?

- a) 010 zenbakira.
- b) 091 zenbakira.
- c) 112 zenbakira.

10. Imaginatu biltegian lan egiten duzula

eta biltegian gordetzeko 2 gauza dituen albaran bat jaso duzula. 3 datu hauetatik, zein agertu behar da beti albaranean?

- a) Data.
- b) Telefonoa.
- c) Helbidea.

11. Azpiko albaran hau osatzeko, datu bat falta da.

Datu hori beti egon behar da, baina hemen ez dago. Zein da datu hori?

- a) Eskaeraren erreferentzia.
- b) Jaso izanaren baieztapena.
- c) Paketeen edukia.

Izena: Limpiezas González		Albaran zenbakia: 238 7462	
		Data: 2025/06/28	
		Bezeroa: Gasteizko Udala	
Kopurua	Izena	Prezioa	Guztira
4	Erratza	10 €	40 €
GUZTIZKO BATURA			40 €



**12. Imaginatu biltegia lan egiten duzula
eta eskatzen dizutela 4 kartoizko kaxako eskaera entregatzeko.
Nori emango diozu eskaera?**

- a) Kontroleko ofizialari.
- b) Kontroleko eta informazioko agenteari.
- c) Atezainari.

**13. Imaginatu ezkertia zarela.
Zure lanean pisu handia duten zamak erabiltzen dituzu
eta lurrean dagoen kaxa bat hartu behar duzu.
Nola egingo duzu?**

- a) Oinak elkarrekin jarriko dituzu eta eskuineko oina aurrean,
belaunak tolestu eta bizkarra zuzen jarriko duzu.
Gero belaunak tolestuko dituzu zama hartzeko.
- b) Oinak elkarrekin jarriko dituzu eta ezkerreko oina aurrean,
belaunak tolestu eta bizkarra zuzen jarriko duzu.
Gero belaunak tolestuko dituzu zama hartzeko.
- c) Oinak elkarrekin jarriko dituzu,
belaunak tolestu eta bizkarra zuzen jarriko duzu.
Gero belaunak tolestuko dituzu zama hartzeko.

**14. Imaginatu lanean pakete bat jasotzen duzula.
Paketean jartzen du premiazkoa dela
eta irekitzea erabaki duzu zer den
eta premiazkoa den ikusteko.
Printzipio hauetatik, zein EZ duzu bete?**

- a) Konfidentzialtasuna.
- b) Prestasuna.
- c) Osotasuna.



15. Imajinatu dokumentu bat entregatzeko eskatu dizutela.

Gutun-azalean datu asko daude

arkatzez eta ordenarik gabe.

**Zuk datuak ezabatzen dituzu asmo onez,
gutun-azala garbiago eta hobeto egon dadin.**

Zein falta egiten ari zara?

- a) Dokumentuaren osotasunaren aurkakoa.
- b) Dokumentuaren segurtasunaren aurkakoa.
- c) Dokumentuaren konfidentzialtasunaren aurkakoa.

16. 3 hauetatik zein da adeitasun arau bat?

- a) Irten baino lehen sartzen uztea.
- b) Atea eusten duen pertsona da lehena sartzen.
- c) Sartu baino lehen irteten uztea.

17. Imajinatu lanean ari zarela Gasteizko Udaleko dokumentuen funtsaren artxiboan eta gaur 2024ko urriaren 15a dela.

2024ko irailaren 20an,

Ogasun Saileko buruak eman zizun

2024ko irailaren 10eko data zuen dokumentu bat.

Nola artxibatuko duzu dokumentu hori?

- a) Dokumentua sortu zen egunaren arabera.
- b) Dokumentuen funtsera dokumentua iritsi zen egunaren arabera.
- c) Ogasun Saitetik dokumentua irten zen egunaren arabera.



18. Imajinatu zure lanean Ane dela artxiboko teknikaria, Jon dela dokumentuen funtseko administraria, eta zu artxiboko zerbitzuetako laguntzailea zarela. Dokumentu bat iritsi da antolatzeko, dokumentuen funts hori sailkatu, antolatu eta deskribatu behar da. Nork egin behar ditu zeregin horiek?

- a) Jonek, dokumentuen funtseko administrariak.
- b) Anek, artxiboko teknikariak.
- c) Zuk, artxiboko zerbitzuetako laguntzaileak.

19. Imajinatu udal artxiboko zerbitzuetako laguntzailea zarela. Egun batean, herritar bat joan da artxibora artxiboko dokumentu bati buruzko galdera bat egitera. Hau da dokumentuaren izena: “Industrializazioa Gasteizen XIX. mendean”. Zein da zure zeregina kasu horretan?

- a) Herritarrari arreta ematea eta azaltzea informazio hori udalarena dela eta ezin diozula erantzun.
- b) Dokumentuak bilatzea, biltegitik ekartzea eta herritarrari ematea.
- c) Dokumentu guztiak fotokopiatzea eta herritarrari ematea.

20. Imajinatu zure lantokian zaudela. Konturatu zara pertsona bat eraikin barnean erretzen ari dela. Nori esango diozu lehenengo?

- a) Segurtasunaz arduratzen den pertsonari.
- b) Zentroko arduraduna den pertsonari.
- c) Udaltzaingoari.



21. Imaginatu zure lanean bilera-gela bat antolatu behar duzula Segurtasunaren Sailerako. Antolatzerantz joan zarenean konturatu zara gelako berogailuak ez duela funtzionatzen. Arazo horren berri eman behar duzu. Zer datu eman behar dituzu?

- a) Tokia, arazoa eta premiazkoa den ala ez.
- b) Data, arazoa eta premiazkoa den ala ez.
- c) Data, tokia, arazoa eta premiazkoa den ala ez.

22. Fotokopiagailua erabiltzean, zer ordenatan egin behar dira ekintza hauek?

- a) Fotokopiagailua piztu, jatorrizko dokumentua jarri, fotokopiagailua berotu eta dokumentua fotokopiatu.
- b) Fotokopiagailua piztu, fotokopiagailua aurretik berotu, jatorrizko dokumentua jarri eta dokumentua fotokopiatu.
- c) Fotokopiagailua piztu, fotokopiagailua berotu, jatorrizko dokumentua jarri eta dokumentua fotokopiatu edo kopiatu.

23. Imaginatu lanean zaudela eta telefonoz euskaraz edo gazteleraz hitz egiten ez duen pertsona batek deitzen dizula. Abdul izena duela esan dizu. Zer egingo duzu?

- a) Oso ozen hitz egingo diozu uler dezan.
- b) Beste pertsona bati laguntza eskatuko diozu.
- c) Esango diozu ezin diozula telefonoz arreta eman eta aurrez aurre etor dadila.




24. Imajinatu paperezko dokumentu bat duzula eta ordenagailuan gorde behar duzula. Zein makina erabiliko duzu?

- a) Eskanerra.
- b) Inprimagailua.
- c) Faxe.

25. Irudian geziarekin adierazten diren teklak, zertarako balio dute?

- a) Kopia ilunago edo argiago jartzeko.
- b) Dokumentua handitzeko.
- c) Fotokopiak azkarrago edo polikiago egiteko.





26. Imajinatu lanean atzo mandatu bat agindu zizutela gaur egiteko.

Baina gaur, gaur bertan egin behar duzun premiazko mandatu bat agindu dizute. Zein egingo duzu lehenengo?

- a) Premiazko mandatua, premiazkoa delako.
- b) Atzo agindutako mandatua, lehenago agindu zizutelako.
- c) Atzo agindutako mandatua, zuretzako garrantzitsuagoa delako.

27. Imajinatu zure lanean banatu behar dituzula 12 paketetan sartuta dauden 1.400 orri, eraikinean dauden 3 inprimagailu gelatan.

Zenbat pakete utzi beharko dituzu gela bakoitzean, gela guztietan orri pakete kopuru bera egon dadin?

- a) 3 pakete.
- b) 5 pakete.
- c) 4 pakete.

28. Bulegoen eraikin batean

zein da gutunak banatzeko modurik eraginkorrena?

- a) Orga bat erabiltzea eta gutunak solairuaren eta hartzaillearen arabera antolatzea.
- b) Orga bat erabiltzea eta gutunak dataren eta solairuaren arabera antolatzea.
- c) Orga bat erabiltzea eta solairu bakoitzean joanaldi bat egitea posta ez nahasteko.



29. Imaginatu 150 orriko dokumentu bat fotokopiatu behar duzula.

**Alde batean bakarrik idatzita dago
eta fotokopiak egingo dituzu
eraginkortasun printzipioari jarraituta.
Zenbat orri aterako zaizkizu?**

- a) 75.
- b) 150.
- c) 300.

30. Zer da albarana?

- a) Jakinarazpen bat.
- b) Abisu bat.
- c) Ohar bat.